



**Recurso nº 1/2011 zenbakiko errekurtsua**  
**Resolución nº 2/2011 zenbakiko ebazpena**

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Batzordekidea / Vocal

M<sup>a</sup> Aránzazu Arana Learte

Idazkaria-batzordekidea / Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

EUSKO TRENBIDEAK SAK errekurtsu berezia jarri baitu Debabarrena, Urola Erdia eta Urola Kosta eskualdeetako eta Donostiako loturako errepide bidezko herriarteko bidaiarien garraio publiko erregular, iraunkor eta orokorreko zerbitzua (LUR-M-02) esleitzeko lehiaketako baldintza administratibo berezien eta jarraibide teknikoan agirien kontra, kontratazio alorreko errekurtsuetarako Foru Auzitegi Administratiboak, goian aipatzen diren kideak bertan izan direla, aho batez hau erabaki du 2011ko uztailaren 15ean.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. (Eusko Tren) contra los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas del concurso para la adjudicación del servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros interurbano por carretera de las comarcas de Debabarrena y Urola Erdia, Urola Kosta y su conexión con Donostia-San Sebastián (LUR-M-02), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 15 de julio de 2011, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

**AURREKARIAK**

**Lehena.-** 2011ko ekainaren 7an, (...), EUSKO TRENBIDEAK SA ordezkatzuz eta haren zuzendari nagusi gisa, kontratazioari buruzko errekurtsu berezia jarri zuen Debabarrena, Urola Erdia eta Urola Kosta eskualdeetako eta Donostiako loturako errepide bidezko herriarteko bidaiarien garraio publiko erregular, iraunkor eta orokorreko zerbitzua (LUR-M-02) esleitzeko lehiaketako baldintza administratibo berezien eta jarraibide teknikoan agirien kontra (lizitazio iragarkia 2011ko maiatzaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

**Bigarrena.-** Sektore Publikoko Kontratuei

**ANTECEDENTES DE HECHO**

**PRIMERO.-** El día 7 de junio de 2011 (...), actuando en nombre y representación de la sociedad pública EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. (Eusko Tren), en calidad de Director General de la misma, interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas del concurso para la adjudicación del servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros interurbano por carretera de las comarcas de Debabarrena y Urola Erdia, Urola Kosta y su conexión con Donostia-San Sebastián (LUR-M-02), cuyo anuncio de licitación fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 20 de mayo de 2011.

**SEGUNDO.-** En cumplimiento de lo previsto



buruzko 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legeak 316.2 artikuluan xedatutakoa betez, Auzitegiko lehendakariak, errekurtsoa sartu zen egun berean, errekurtsoa ezarri zutela jakinarazi zion Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Idazkaritza Teknikoari. Horrekin batera, errekurtso idatziaren kopia eman zion eta kontratazio espedientea eta zegokion txostena igor ziezazkion eskatu zion. Bai espedientea bai txostena ekainaren 13an sartu ziren Auzitegiko erregistroan.

**Hirugarrena.-** Auzitegiko lehendakariak egindako eskaerari erantzunez, Departamentuko idazkari teknikoak, ekainaren 21eko idatziaren bidez, jakinarazi zuen ezen, eskaintzak aurkezteko epea igarota, proposamen bakar bat aurkeztu zela, eta berau EUSKO TRENBIDEAK SAK eta HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA SAK elkarrekin aurkeztu zutela.

**Laugarrena.-** Errekurtsoa jartzeko idatzian, Berebat Diot formularen bidez, lehiaketa bidezko esleipen prozedura behin-behingo ez etetea eskatzen zen. Kontratazio organoari entzun ondoren, Auzitegiak, 2011ko ekainaren 27ko ebazpenaren bidez, lehiaketa bidezko esleipen prozedura kautelaz etetea erabaki zuen, harik eta errekurtsoa ebatzi arte.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### Errekurtsoa onartua izateko aukera

**LEHENA.-** Zerbitzu publiko bat emakida administratiboaren bidez kudeatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak egin behar duen kontratazioa dela eta, kontratazio hori arautu behar duten agirien aurka jarri da errekurtso berezi hau. Zerbitzu publiko horrek 500.000 euroko baino gehiagoko aurrekontua du urteko, eta bost urte baino gehiago iraungo du.

Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 310. artikulua 1.c) eta 2.a) ataletan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke, eta Auzitegi honek eskumena du horren gainean erabakitzeko, kontratazio alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboaren sorrerari eta araudiari buruzko 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak 2.3.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Errekurtsoa jarri duenak, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legeak 312. artikuluan ezarritako legitimazioaren baldintza betetzen du. Beste aldetik, lege bereko 314.2.a

en el artículo 316.2 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público (LCSP), en la misma fecha el Presidente del Tribunal notificó la interposición del recurso a la Secretaría Técnica del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, remitiéndole copia del escrito de interposición, y le requirió la remisión del expediente de contratación y del correspondiente informe; expediente e informe que tuvieron entrada en el registro del Tribunal el día 13 de junio.

**TERCERO.-** Dando respuesta al requerimiento efectuado por el Presidente del Tribunal, el Secretario Técnico del departamento, mediante escrito de fecha 21 de junio, informó que, concluido el plazo de presentación de ofertas, solamente se ha recibido una proposición, presentada conjuntamente por las empresas EUSKO TRENBIDEAK FERROCARRILES VASCOS, S.A. e HIJOS DE ANTONIO AREIZAGA, S.A.

**CUARTO.-** En el escrito de interposición del recurso, mediante otrosí, se solicitó la medida provisional de suspensión del procedimiento de adjudicación del concurso. Oído el órgano de contratación, por Resolución de 27 de junio de 2011 el Tribunal acordó suspender cautelarmente el procedimiento de adjudicación del concurso hasta que se resuelva el recurso.

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Admisibilidad del recurso

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se plantea contra los pliegos que han de regir la contratación por la Diputación Foral de Gipuzkoa de la gestión mediante concesión administrativa de un servicio público cuyo presupuesto anual es superior a 500.000 euros y el plazo de duración superior a cinco años.

Por lo tanto, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 1.c) y 2.a) del artículo 310 LCSP, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación, y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, por así venir establecido en el artículo 2.3.a) del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 312 LCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 314.2.a) y después de haberlo



artikuluaren ezarritako epearen barruan jarri da errekurtsoa, eta 314.1 artikuluan ezarritakoaren arabera alde aurretik horren berri eman ondoren, nahiz eta errekurtsoa iragartzeko idatzia, 2011ko ekainaren 6an Foru Aldundiko erregistro zentralean aurkeztua, Auzitegi honi zuzendua zegoen oker, kontratazio organoari zuzendu behar zitzaionez.

### Gaiaren mamia

**HIRUGARRENA.-** Errekurtso idatziaren zera eskatzen zaio Auzitegiari, hitzez hitz: *“Eman dezala ebazpena, aurkaratutako agiriak ezeztu eta eraginik gabe uzteko, eta zera erabaki dezala:*

1.- *Enpresen aldi baterako batasunak aurkeztu ahal izatea errepide bidezko bidaiariaren herriarteko garraio publiko erregular, iraunkor eta orokorreko zerbitzuren emakida erabakitzeko lehiaketan, eta enpresen aldi baterako batasun horiek formalizatu ahal izatea zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua.*

2.- *Eselependunak subrogazioz hartzea bai emakidari atxikitako langileen lan eskubideak eta baldintzak, langile horiei dagozkien hitzarmen kolektiboetan xedatutakoaren arabera, bai langileok eskuratutako eskubideak, eta, aurrekoa aintzat hartuta, langileen kostuei buruz beste balorazio bat egitea.*

A) *Subsidiarioki, argitzea zer eskubide baloratuko diren, langileek eskuratutako eskubideak mantentzeko konpromisoa hartzeagatik, eta eskuratutako eskubideak mantentzeko konpromisoari 10 puntuko puntuazioa ematea gutxienez.*

B) *Eskuratutako eskubideak mantentzeko konpromisoa betearaztea, subrogatutako langileak emakidari atxikitakoetatik % 75 gutxienez badira bakarrik, eta ez bestela.*

*Aurreko guztiarekin batera, eskaintzak aurkezteko beste epe bat ematea”.*

### A) Aldi baterako enpresa batasunak onartzeko aukerari buruz

**LAUGARRENA.-** Kontratuko baldintza administratibo berezien agiriaren arabera, lizitatuak enpresa-talde bezala aurkeztu daitezke lizitazioan (12.6 baldintza), eskaintza bakar bat eginda, eta ez daude behartuta enpresa-batasun bat edo beste mota bateko enpresa-lankidetzaren bat

anunciado previamente en la forma prevista en el artículo 314.1, si bien el escrito de anuncio del recurso presentado el 6 de junio de 2011 en el registro central de la Diputación Foral se dirige por error a este Tribunal en lugar de al órgano de contratación.

### Fondo del asunto

**TERCERO.-** En el suplico del escrito de recurso se solicita de este Tribunal que *“dicte resolución por la que anule y deje sin efecto los pliegos impugnados y determine:*

1.- *La posibilidad de que las Uniones Temporales de Empresas pueden presentarse al concurso para el otorgamiento de la concesión del servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros interurbano por carretera (LUR-M-2) y formalizar, en el supuesto de ser adjudicatarios, el contrato relativo a la gestión del servicio público.*

2.- *La efectiva subrogación del adjudicatario en todos los derechos y condiciones de trabajo del personal adscrito a la concesión establecidos en los convenios colectivos que son de aplicación a dicho personal, y los derechos adquiridos que ostenten, procediendo a realizar una nueva valoración de los costes de personal en función de lo anterior.*

A) *Subsidiariamente se proceda a clarificar cuáles son los derechos adquiridos cuya asunción será valorada en la oferta como compromiso de mantenimiento y que la puntuación de asumir el compromiso de respeto a los derechos adquiridos sea, al menos, de 10 puntos.*

B) *Que el compromiso de asunción de los derechos adquiridos sólo sea finalmente considerado si efectivamente se subroga al menos un 75% del personal adscrito a la concesión.*

*Todo ello con otorgamiento de nuevo plazo para la presentación de ofertas”.*

### A) Cuestión relativa a la posibilidad de admitir Uniones Temporales de Empresas

**CUARTO.-** El pliego de cláusulas administrativas particulares del contrato contempla la posibilidad de que los licitadores puedan concurrir a la licitación en agrupación de empresas (cláusula 12.6) haciendo una única oferta, sin necesidad de acreditar haber constituido una unión temporal ni



eratu dutela egiaztatza, baldin eta formalki hitz ematen badute ezen, hautatuak badira, Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamenduak, 1990eko irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaz onartuak, 42.1 artikuluko a) letran zerrendatutako pertsona juridikoetatik bateren baten arabera eratu direla, hau da, merkataritzako sozietate bezala, lan-sozietate anonimo bezala edo lan elkartuko kooperatiba bezala. Kontratuaren esleipena, eraturako pertsona juridikoari egingo litzaioke.

Lizitazioan enpresa-talde bezala hartzen bada parte, baldintza administratiboen ageriko 14.6.f puntuaren arabera baldintza hau bete behar da: enpresa guztien legezko ordezkariak formalki hitz ematea, gaitasunari eta kaudimenari buruzko lehen zenbakiko gutun-azalean, Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamenduak 42.1 artikuluko a) letran zerrendatutako pertsona juridikoetatik bateren baten arabera eratu dutela beren burua, baldin eta kontratuaren esleipendun suertatzen badira. Eraketa hori egin dutela bi hilabeteren barruan egiaztatu behar dute, eraketa-eskaera jasotzen duten egunetik kontatzen hasita, eta, baldintza hori ez badute betetzen, beren eskaintzan atzera egin dutela ulertuko da. Sozietate emakidadun bezala eratzeko konpromiso hori formalizatzeko, agiriaren IV. eranskinean eredu bat agertzen da, zeina enpresa-taldeek lehen zenbakiko gutun-azalean aurkeztu behar duten.

Gertatzen bada eskaintza ekonomiko onena aurkeztu duena enpresari talde bat dela, kontratazio organoak talde horri eskatuko dio ezen, baldintza administratiboen ageriko 19.3 baldintzan xedatutakoaren arabera, aurkeztu dezala, bi hileko epean, Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamenduak 42.1 artikuluko a) letran zerrendatutako pertsona juridikoetatik bateren baten arabera bere burua eratu duela egiaztatzen duen eskritura.

**BOSGARRENA.-** Auziaren mamia zera da, beraz: argitzea ea, batetik, enpresa-taldeak aurkez daitezkeen errepide bidezko herriarteko bidaiarien garraio publiko erregular, iraunkor eta orokorreko zerbitzua emateko lehiaketan, Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamenduak 42.1 artikuluko a) letran zerrendatutako pertsona juridikoetatik bateren baten arabera beren burua eratzeko konpromisoa hartu gabe, eta, bestetik, formalizatu dezaketen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua, kontratuaren esleipendun suertatzen badira, delako pertsona juridiko hori eratu gabe.

ninguna otra forma de colaboración empresarial, siempre que adquieran formalmente el compromiso de constituir, en caso de que aquella resultara seleccionada, una persona jurídica de las enumeradas en la letra a) del artículo 42.1 del Reglamento de Ordenación de Transportes Terrestres, aprobado por el Real Decreto 1211/1990, de 28 de septiembre (ROTT), esto es, una sociedad mercantil, sociedad anónima laboral o cooperativa de trabajo asociado, a la que se le realizaría la adjudicación del contrato.

Para el caso de concurrir a la licitación en agrupación de empresas, la cláusula 14.6.f) del pliego de cláusulas administrativas exige que se incluya en el sobre nº 1 sobre capacidad y solvencia el compromiso formal de los representantes legales de todas las empresas de constituir válidamente una persona jurídica de las enumeradas en la letra a) del artículo 42.1 del ROTT, en el supuesto de resultar adjudicatarios del contrato, debiendo acreditar su constitución dentro del plazo máximo de dos meses desde la recepción del requerimiento, en cuyo defecto se entenderá que ha retirado su oferta. Para la formalización de este compromiso de constitución de sociedad concesionaria el pliego recoge un modelo como Anexo IV que las agrupaciones de empresas han de presentar en el sobre nº 1.

En el supuesto de que el licitador que hubiera presentado la oferta económicamente más ventajosa sea una agrupación de empresarios, el órgano de contratación le requerirá, según lo dispuesto en la cláusula 19.3 del pliego de cláusulas administrativas, para que en el plazo de dos meses aporte la escritura pública de formalización de la entidad jurídica constituida de las enumeradas en la letra a) del artículo 42.1 del ROTT.

**QUINTO.-** La primera cuestión de fondo se centra, por tanto, en dilucidar si las agrupaciones de empresas pueden presentarse al concurso para el otorgamiento de la concesión del servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros interurbano por carretera, sin necesidad de asumir el compromiso de constituir, para dicho caso, una de las personas jurídicas enumeradas en la letra a) del artículo 42.1 del ROTT, y formalizar, en el supuesto de ser adjudicatarias, el contrato relativo a la gestión del servicio público, sin constituir dicha persona jurídica.



Bidariaren errepidezko hiri eta hiriarteko garraioa 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeak, Errepidezko Bidaiari Garraioarenak, arautzen du, garraio hori oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoan egiten denean. Legea Eusko Legebiltzarrak onartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.32 artikulua araberaz berariaz berea den eskumenaz baliatuz. Lege horrek ez du erregelamenduzko garapenik izan, baina bere lehen xedapen iragankorrean adierazten du ezen, erregelamendurik ez badago, gaiari dagokionez indarrean dauden arauak aplikatuko direla, non eta arau horiek ez diren legearen beraren aurkakoak.

Erabilera orokorreko herriarteko bidaiari-garraioaren zerbitzu publikoen kudeaketan, araubide hurrenkera hau bete behar da Euskal Autonomia Erkidegoan, 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeko 19.2 artikulua araberaz: lehendabizi, legedi sektoriala, hau da 4/2004 lege bera; bigarrenez, lege hori garatzen duten xedapenak eta, horrelakorik ez badago, gaiari dagokionez indarrean dauden arauak, hau da, Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamendua; eta, azkenik, kontratazio administratiboa arautzen duten arau orokorrak, Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamenduan aurreikusita ez dauden gaitan.

Hala, 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeko 21. artikulua araberaz, bidaiarien garraio zerbitzu publikoa administrazio emakida baten bitartez gauzatuko da, oro har, eta lege bereko 25.1 artikulua araberaz, berriz, emakida esleitzeko, lehiaketa prozedura beteko da.

4/2004 Legeak ez du zehazten enpresa lizitatzailerik zer baldintza bete behar dituzten, parte hartu nahi badute bidaiarien garraio publiko erregular eta iraunkorraren zerbitzu publikoaren emakida esleitzeko lehiaketetan, baina bai Lurreko Garraioa Antolatzeko 1987ko uztailaren 30eko 16/1987 Legeak, zeinak puntu honi dagokionez (73.1 artikulua) berariazko baldintzat aipatzen baititu garraio publikoaren zerbitzuak ematea gaitzen dituzten titulu administratiboak emateko baldintzak (48. artikulua) eta kasu jakin bakoitzerako arau ezarrita dauden baldintzak.

Beraz, hutsune hori betetzeko, Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamendua 70.2 artikulua bete behar da, 4/2004 Legeko lehen xedapen iragankorraren araberaz. Artikulu horrek, alde batetik, zera eskatzen die bidaiarien garraio publiko erregular eta iraunkorraren zerbitzu publikoaren emakida esleitzeko lehiaketetan parte hartzen duten

La norma que regula el transporte urbano e interurbano de viajeros por carretera que transcurra íntegramente por el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco es la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Viajeros por Carretera, aprobada por el Parlamento Vasco en ejercicio de la competencia exclusiva prevista por el artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía del País Vasco. Esta Ley no ha sido desarrollada reglamentariamente, pero su disposición transitoria primera prevé para tal caso que se aplicarán las normas vigentes en esta materia, en lo que no se opondrán a la misma.

La gestión de los servicios públicos de transporte interurbano de viajeros de uso general en la Comunidad Autónoma se debe regir, según el artículo 19.2 de la Ley 4/2004, de 18 de marzo, en primer lugar, por la legislación sectorial, esto es, por la propia Ley 4/2004; en segundo lugar, por sus disposiciones de desarrollo y, en tanto no se dicten, por las normas vigentes en dicha materia, esto es, el ROTT; y solamente se aplicarán las normas generales reguladoras de la contratación administrativa en lo no previsto por aquéllas.

Así, la Ley 4/2004, de 18 de marzo, prevé que el servicio público de transporte de viajeros se efectuará, como regla general, mediante concesión administrativa (artículo 21.1), para cuyo otorgamiento se seguirá el procedimiento de concurso (artículo 25.1).

Esta Ley 4/2004 no especifica cuáles son los requisitos que las empresas licitadoras han de reunir para concurrir a los concursos para la adjudicación de la concesión para la prestación de un servicio público regular permanente de transporte de viajeros, a diferencia de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres (LOTT), que se remite expresamente en este punto (artículo 73.1) a los requisitos previstos para el otorgamiento de los títulos administrativos habilitantes para la prestación de los servicios de transporte público (artículo 48) y a los que reglamentariamente, o para cada caso concreto se determinen.

Por lo tanto, para colmar dicha laguna, resulta de aplicación, según la disposición transitoria primera de la Ley 4/2004, el artículo 70.2 del ROTT, que exige, en primer lugar, a todas las empresas que liciten en los concursos para la adjudicación de la concesión para la prestación de un servicio público regular permanente de transporte de viajeros, el



enpresei, hots, garraio publikorako gaitzen duen titulua lortzeko Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamenduak 42. artikuluan eskatzen dituen baldintza orokorrak betetzea, baldintza horietako bat delarik pertsona fisikoa edo juridikoa izatea (42.1 artikuluko a letra); eta, bestetik, eskaintza bakar bat eginda, enpresa bat baino gehiago batera aurkezteko aukera ematen du, baldin eta enpresa horiek formalki hitz ematen badute ezen, hautatuak badira, Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamenduak 42.1 artikuluko a) letran zerrendatutako pertsona juridikoetatik bateren baten arabera eratu direla. Azken kasu horretan, enpresak ez daude behartuta enpresa-batasun bat edo beste mota bateko enpresa-lankidetzaren bat eratu dutela egiaztatzeraz, hautatuak izan baino lehen.

Estatuko legeri sektorialaren aplikaziorako ez da eragozpen Auzitegi Konstituzionalaren 118/1996 Epaia, zeinak Konstituzioaren aurkakotzat jo zuen Lurreko Garraioa Antolatzeko Legeko 2. artikulua zati bat, erkidegoetako legeriaren ordezkari Lurreko Garraioa Antolatzekoa aplikatzea aurreikusten zenez. Izan ere, epaiaren arabera, autonomia erkidegoko eskumen eksklusiboak diren gaitetan, erkidego barneko lurreko garraioak kasu, Estatuak ezin du ordezkari eragin hutsa duen araurik eman, zeren eta, epaiak berak aitortzen duen bezala, kasu jakin bakoitzean hutsuneren bat atzematen duen Zuzenbidearen aplikatzailea baita hutsune hori konpondu behar duena, Espainiako Konstituzioko 149.3 artikuluan jasota dagoen ordezkotasun baldintzaren arabera.

Kontratazio organoak bere txostenean azpimarratzen duen bezala, 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeak berak, bidaiarien garraioaren zerbitzu publikoaren emakida arautzen duenean, 25. artikuluan, mota honetako aipamenak egiten ditu: *enpresa lizitatuak* (3. atala), *eskaintzak egiten dituzten enpresak* (4. atala), *ordura arte zerbitzua ustiatu ez duen enpresa bat ateratzea emakidadun* (6. atala) eta *enpresa emakidadun berria* (7. atala). Legorik, beraz, ez du aurreikusten enpresen aldi baterako batasunak emakidadun suertatzea.

Orobat, 4/2004 Legeak "pertsona" hitza erabiltzen du berariaz, bai garraio lanbidearen baldintza orokorrak arautzean (10.1 artikulua: *lege honen bidez arautzen den garraio publikoa, ondorengo artikuluetan ezartzen diren baldintza subjektiboak eta objektiboak betetzen duten pertsonak egin dezakete*), eta baita beste zenbait okasiotan ere, esate baterako, garraioa egitea

cumplimiento de los requisitos previstos con carácter general en el artículo 42 del ROTT para la obtención del título habilitante para el transporte público por carretera, entre los que se encuentra el requisito de ser persona física o jurídica [letra a) del artículo 42.1]; y en segundo lugar, permite concurrir de forma conjunta a varias empresas, haciendo una única oferta, siempre que adquieran formalmente el compromiso de constituir, en caso de que aquélla resultara la seleccionada, una persona jurídica de las enumeradas en la letra a) del artículo 42.1 del ROTT, a la que se realizaría la adjudicación definitiva, sin que resulte necesario que tales empresas acrediten haber constituido una unión temporal, ni ninguna otra forma de colaboración empresarial antes de que dicha selección se hubiese producido.

Para la aplicación de la legislación sectorial estatal no es óbice que la STC 118/1996, de 27 de junio, hubiera declarado inconstitucional parte del artículo 2 de la LOTT, que preveía la aplicación supletoria de la Ley respecto de la legislación autonómica, por considerar que el Estado no puede dictar normas con eficacia meramente supletoria en materias que se encuentran sometidas a la competencia exclusiva de las CCAA, como ocurre en el transporte terrestre intracomunitario, y ello porque la misma Sentencia reconoce que es el aplicador del Derecho que detecte una laguna en cada caso concreto el que habrá de colmarla según la cláusula de supletoriedad recogida en el artículo 149.3 de la CE.

Tal como destaca el órgano de contratación en su informe, la propia Ley 4/2004, de 18 de marzo, al regular el otorgamiento de la correspondiente concesión del servicio público de transporte de viajeros en el artículo 25, se refiere en todos los casos a las "empresas licitadoras" (apartado 3), "empresas que formulen" las distintas ofertas (apartado 4), a que "resulte adjudicatario de la concesión una empresa distinta de la que hasta entonces hubiera explotado el servicio" (apartado 6), y a "la nueva empresa concesionaria" (apartado 7), sin que prevea la posibilidad de que resulten adjudicatarias las uniones temporales de empresas.

Asimismo, la Ley 4/2004 utiliza expresamente el término "personas" al regular los requisitos generales para el ejercicio de la profesión de transportista (artículo 10.1: "el transporte público regulado en esta ley podrá ser realizado por aquellas personas que cumplan los requisitos subjetivos y objetivos que se establecen en los siguientes artículos"), y en diversas ocasiones, como cuando se



gaitzen duten titulu administratiboen eskualdaketa ari denean (15. artikulua) garraioa egiten gaitzen duten tituluaren jabea buruz ari denean eta garraioa nahiz garraio zerbitzuko emakiden eta baimenen jabea buruz ari denean (16.1, 17, 29.5, 35.2, 48.6 eta 55.1.b artikulua).

Era berean, arau-hausteengatik erantzukizun administratiboen erregimena arautzean, 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legeak ere aipamen hauek egiten ditu berariaz: *emakidaren pertsona fisiko edo juridiko titularra (52.1.a artikulua) eta baimendu gabeko pertsona fisikoak edo juridikoak (55.11 artikulua)*.

Ikusirik, beraz, gai honi dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu behar den araudiak pertsona fisiko edo juridiko izatea eskatzen duela, bai bidaiarien garraioaren zerbitzu publikoa emateko lehiaketa horietan parte hartu ahal izateko, bai garraio publikoaren jardura egiteko eta bai gaikuntzako titulu administratiboak eskuratzeko, epaimahai honek uste du ezen kontratu honetan eskatu egin behar dela agiriko baldintza, hau da, enpresa-taldeek hitzeman behar izatea pertsona juridiko bezala eratuko dutela beren burua, baldin eta hautatuak badira.

Hori dela eta, gertatzen baita, aldi baterako enpresa talde eta batasunen zerga arauari buruzko 1982ko maiatzaren 26ko 18/1982 Legeko 7.2 artikulua araberak, aldi baterako enpresa-taldeek ez dutela nortasun juridiko propioa, enpresa horiek ezin dute kontratuaren esleipendun izan, non eta formalki hitz ematen ez duten ezen, hautatuak badira, Lurreko Garraioa Antolatze Erregelamenduak 42.1 artikuluko a) letran zerrendatutako pertsona juridikoetatik bateren baten araberak eratuko direla, baldintza administratibo berezien agiriak eskatzen duen bezala.

Kontratazio organoak bere txostenean adierazten duen bezala, Estatuko Administrazio Orokorra ere, Estatu eskumeneko bidaiarien herriarteko garraio publiko erregular, iraunkor eta orokorreko zerbitzuen kontratuak lizitaziora ateratzen dituztenean, lurreko garraioari dagokion legedi sektorialaren baldintzak eskatzen ditu lehendabizi, Lurreko Garraioa Antolatze Legeak 69.2 artikuluan xedatutakoa betez, hau da, lehiaketara enpresa-talde bezala aurkezten diren lizitatuak hitz eman behar dutela ezen, hautatuak badira, Lurreko Garraioa

refiere a la transmisión de los títulos administrativos habilitantes de transporte (artículo 15), así como para referirse a los titulares de los títulos habilitantes en materia de transporte y a los titulares de las concesiones o autorizaciones en materia de transporte y servicios de transporte [artículos 16.1, 17, 29.5, 35.2, 48.6, y 55.1.b)].

Del mismo modo, en la regulación del régimen de responsabilidades administrativas por infracciones, Ley 4/2004, de 18 de marzo, también se refiere expresamente a "*persona física o jurídica titular de la concesión*" y a las "*personas físicas o jurídicas no autorizadas*" [artículos 52.1.a) y 55.11].

A la vista, por tanto, de que la normativa de aplicación en esta materia en la Comunidad Autónoma del País Vasco exige, tanto para la participación en estos concursos para la concesión del servicio público de transporte de viajeros, como para el ejercicio de la actividad del transporte público y para la obtención de los títulos administrativos habilitantes, el requisito de ser persona, física o jurídica, este Tribunal considera que la condición exigida por el pliego consistente en que las agrupaciones de empresas tengan que adquirir el compromiso de constituir una persona jurídica, en caso de resultar seleccionadas, es exigible en el presente contrato.

En consecuencia, dado que las uniones temporales de empresas no tienen personalidad jurídica propia, según el artículo 7.2 de la Ley 18/1982, de 26 de mayo, sobre Régimen Fiscal de Agrupaciones y Uniones Temporales de Empresas y de las Sociedades de Desarrollo Regional, no pueden ser adjudicatarias del contrato si las empresas en cuestión no adquieren formalmente el compromiso de constituir, en caso de resultar seleccionadas, una persona jurídica de las enumeradas en la letra a) del artículo 42.1 del ROTT, tal como lo exige el pliego de cláusulas administrativas particulares.

Como afirma el órgano de contratación en su informe, la propia Administración General del Estado en las licitaciones de los contratos de servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros interurbano por carretera de competencia estatal, también aplica, en primer lugar, según lo dispuesto por el artículo 69.2 de la LOTT, los requisitos exigidos por la legislación sectorial en materia de transportes terrestres, exigiendo que los licitadores que se presenten a los concursos en agrupación de empresas adquieran el compromiso



Antolatzeko Erregelamenduko 42.1 artikuluan zerrendatutako pertsona juridikoetatik bateren baten arabera eratu behar dutela beren burua. Adierazitakoaren adibidea da Huelvako Ayamontetik Bartzelonako Santa Coloma de Gramanetera bidaiarien garraio publiko erregular, iraunkor eta orokorreko zerbitzuaren emakida administratiboa esleitzeko prozedurako baldintzen agiria, Sustapen Ministerioak 2011ko otsailean onartua (<http://www.fomento.gob.es/NR/rdonlyres/D3DEB4CE-E99D-4EF1-A5B0-5F9066A4B10E/99669/ppt.pdf>).

Enpresen aldi baterako batasunei lehiaketetan parte hartzen ez uzteko ezintasuna dela eta, errekurtsogileak alegatzen duen Auzitegi Gorenaren 1993ko azaroaren 16ko Epaia dagokionez, zera argitu behar da, hots, epaiaren gaia ez dela bidaiarien garraio zerbitzuen prestazioa, eta, beraz, ez dagokiola kasu honi.

Ezin dira erreferentziatzat hartu, ezta ere, errekurtsogileak aipatzen dituen beste autonomia erkidegoetako justiziako auzitegi gorenen epaiak, Euskal Autonomia Erkidegoan 2004ko martxoaren 18ko 4/2004 Legea baita aplikatu beharrekoa.

Azkenik, errekurtsogileak eskatzen du "zerbitzu publikoko operadore" kontzeptuaren definizioa aplikatzea (definizio hori, bidaiarien trenbideko eta errepideko garraioaren zerbitzu publikoei buruzko Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2007ko urriaren 23ko 1370/2007 zenbakiko EB Araudiko 2. artikuluan egiten da), uste baitu enpresen aldi baterako batasunak ere sartzen direla definizio horretan, Araudiak honela definitzen duenez "zerbitzu publikoko operadore" kontzeptua: *bidaiarien garraioko zerbitzu publikoak ustiatzen dituen zuzenbide publiko edo pribatuko edozein enpresa edo enpresa-talde, edo bidaiarien garraioko zerbitzu publikoak ematen dituen edozein organismo publiko.*

Alabaina, kontratazio organoak bere txostenean adierazten duen bezala, 1370/2007 zenbakiko EB Araudiaren 2. artikuluko horretako definizio horiek, Araudian xedatutakoaren eraginetarako bakarrik daude emanda. Edozein eratar, barne araudiko eskakizun horrek, hau da, lizitaziora aurkezten diren enpresa-taldeek hitz eman behar izateak pertsona juridiko bezala eratuko dutela beren burua, baldin eta hautatuak badira, ez du aipatutako Araudiko araurik hausten.

de constituir, en el caso de que su oferta resulte seleccionada, una persona jurídica de las enumeradas en el artículo 42.1 del ROTT, como por ejemplo en el pliego de condiciones del procedimiento para la adjudicación de la concesión administrativa del servicio de transporte público regular permanente y de uso general de viajeros por carretera entre Ayamonte (Huelva) y Santa Coloma de Gramanet (Barcelona), aprobado por el Ministerio de Fomento en febrero de 2011 (<http://www.fomento.gob.es/NR/rdonlyres/D3DEB4CE-E99D-4EF1-A5B0-5F9066A4B10E/99669/ppt.pdf>).

